28 IRAILAK SEPTIEMBRE SEPTEMBRE – 4 URRIAK OCTUBRE OCTOBRE

# EUSKAL HERRIKO EMAKUMEEN MUNDU MARTXA

## IV. NAZIOARTEKO EKINTZA

## 2015

# KOMUNIKAZIO-DOSSIERRA

# IBILBIDEA

# KOMUNIKAZIO-DOSSIERRA

# ZEIN DA
## MARTXAREN JATORRIA?

1**995**ean, Quebec-eko emakume-mugimenduak martxa bat egin zuen, Ogiaren eta Larrosen Martxa, eta 15.000 pertsonak egin zuten bat horrekin, hamar egunez. Babesa ez zen soilik bertako jendearengandik etorri; aitzitik, martxak eragin handia izan zuen nazioartean. Hori dela eta, **2000**. urtean martxa modu zabalean deitzea erabaki zen, mundu-mailan, demokrazia, itxaropena, berdintasuna eta bakea aldarrikatzeko.

# ZERGATIK
## ANTOLATU ZEN?

Emakumeak zirelako politika neoliberal basatien **biktima nagusiak**, herrialde askotan emakumeak ari zirelako oinarrizko eskubideen alde **borrokan**, emakumeen kontrako **indarkeria areagotzen** ari zelako eta errealitate horiei guztiei aurre egin behar zitzaielako.

# ZER
## ALDARRIKATZEN ZUEN?

Martxak bi gai bildu zituen, mundu osoko feministak ados baitaude horien inguruan: **pobrezia eta indarkeria sexista**. Dena dela, ez ziren gai horiek bakarrik jorratu, beste alderdi batzuez ere jardun zen, besteak beste, formazio- eta hezkuntza-plan osoko baten beharraz, kontzientziazio feministaktibatze aldera. Gainera, helburu taktikoago bat ere ezarri zen: mundu-sare feministaktibat sortzea, hala globalki nola lokalki eragin dezan.

# NON ETA NON
## HASI ZEN MUNDU MARTXA?

2000. urteko martxoaren 8an abiatu zen Quebec eta Genevan, eta New Yorken amaitu zen. Euskal Herrian ere izan zuen eraginik, hain zuzen, plataforma anitz bat osatu zuten 44 talde inguruk. Ekainaren 17an eta urriaren 7an hainbat ekintza egin ziren Euskal Herriko hainbat txokotan (antzerkia, idazleen egunak, manifestaldiak), eta, amaitzeko, manifestaldi nazionala egin zen Donostian. Era berean, hainbat udaletxetan mozioak aurkeztu ziren atxikimenduak lortzeko asmotan, eta Bruselara martxa antolatu zen, Europako mobilizazioa babesteko.

Lortutako eragina eta babesa ikusita, bost urtean behin mundu-ekintza handi bat egitea erabaki zen.

# ZER
## EKINTZA-EREMU JORRATU ZIREN?

Hainbat herrialdetako milaka emakume mobilizatu ziren, honako lau ekintza-eremu hauen barruan ezarritako eskakizun eta proposamenen harira:

**1.- Guztion ongizatea eta elikadura-burujabetza**
**2.- Bakea eta desmilitarizazioa**
**3.- Emakumeen lan ikusgarria eta ikusezina**
**4.- Emakumeen kontrako indarkeria, horien gorputzak, bizitza eta sexualitatea kontrolatzeko tresna modura**

2004ko abenduan, Kongon, hainbat herrialdetan egindako eztabaida-prozesu luze baten ondoren, adostasuna lortu zen eta honako hau onartu zen: "**Emakumeen Gutuna Gizateriarentzat**". Urte horretan, New Yorken hasi zen Martxa, eta urriaren 17ra arte, herrialdez herrialde pasatu zuten Gutuna, lekuko bat bezala.



# ETA
## EUSKAL HERRIAN?

2. Nazioarteko Ekintzari babesa emateko, Euskal Herrian helburu zehatz bezain anbiziotsua jarri zen martxan, 2003an: Mundu Gutuna oinarri bezala hartuta, eztabaida irekia egitea proposatu zen, herriz herri, hartara, "**Euskal Herriko Emakumeen Eskubide Gutuna**" sortzeko.

Martxak arrakasta itzela izan zuen Euskal Herrian, eta bost egunez (maiatzaren 24tik 28ra), autobus more batek, aldarrikapen feministez josia, herriak zeharkatu zituen, geure eskubideen begien bistako urraketak salatzeko.

2007an geure Gutuna onartu genuen eta hori jendartean zabaltzeari ekin genion. 2010ean Martxa antolatu zen berriz, nahiz eta modu apalagoan, eta berriro ere Gutuna oinarri hartuta. Mobilizazio- eta atxikimendu-kopurua jaitsi egin zen, baina plataformak konpromisoa hartu zuen bere gain, lanean segitzeko eta horri eusteko, gaurko egunera arte egin duen moduan.

Azken urteotan, hainbat prozesutan parte hartu dugu, mundu-mailako aldarrikapen nagusietatik abiatuta. Beste ekintza batzuen harira, adibidez, indarkeria sexistari dagokionez, nazio-mailan, **24 orduko ekintza-protokolo bat** adostu dugu, erantzun bateratua lortzeko, eta, helburu horrekin, lanketa bat egiteko, herriz herri.

Era berean, prekarietate- eta pobrezia-ardatzaren barruan hainbat ekintza egin ditugu, tartean, azpimarragarriena: geure aldarrikapen propioak egin ditugu azken greba orokorren deialdietan (adibidez, **zaintza-greba** aldarrikatu genuen).

# ZER EKINTZA-EREMU DAUDE EUSKAL HERRIAN?

Gaur egun, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxako plataforman hango eta hemengo emakume-antolakundeak ditugu. Hortaz, gure **EKINTZA-EREMUAK** birdefinitu ditugu, eduki eta ekarpen berriak gehituz, gaur egun plataforman dauden emakumeen aniztasunari esker. Honako hauek dira eremuak:

## SISTEMARTEKO INDARKERIAK

Gaur egun Euskal Herrian bizi garen eta Mundu Martxaren parte garen emakumeok adierazten dugu borrokan gaudela, sistemarteko indarkeriarik gabeko bizitza baten alde, eta salatu egiten ditugu, egunero gu menderatu eta azpiratzeko, gorputz eta lurraldei gogor erasotzen dien indarkerian mamitzen diren **askotariko zapalkuntza-sistemak**.

Zapalkuntza-sistema horiek neoliberalismo deitzen dugun horretan elkarlotzen dira, eta besteak beste, hauek dira: murrizketak, **arrazakeria, matxismoa, heterosexismoa, helduen nagusitza, eurozentrismoa, esklaboen salerosketa, kolonialismoa eta inperialismoa**. Horiek guztiek indarkeria-ukabil bakar batek bezala ekiten dute munduan bizi garen emakumeon eta herrion kontra. Ekintza horiek, oinazea eragiten baitute eta delitua baitira, honako modu hauetan agertzen dira: indarkeria fisikoa, sexuala, psikologikoa, sinbolikoa eta hitzezkoa; prekarietatea, ondarearen eta ekonomiaren indarkeria, familia zaintzen duten emakumeen pobretzearen bitartez. Indarkeriaren agerraldi guztien kontra matxinatzen gara eta eraisten ditugu. Aldarrikatzen dugu eta aurre egiten diegu, guk emakume desberdinok, ezberdinok, anitzok, eta guztiok elkartuta, hala pertsonalki nola taldean berrindartzen gara.

Borrokan ari gara eta borrokan jarraituko dugu **sistemarteko indarkeriarik gabeko gorputzen eta lurraldeen alde**.

## BIZITZAREN IRAUNKORTASUNA

Bizitzaren iraunkortasuna da **bizitza erdigunean ipintzea**, merkatuen logikaren ordez, horren helburua baita etekin ekonomiko ahalik eta handiena ateratzea, kosta ala kosta. Bizitzaren iraunkortasuna da normalean ikusezinak izaten diren lan guztiak ikusaraztea, bizitzari eusten dioten lanak eta sistema kapitalista heteropatriarkal honetan ezkutuan daudenak, historikoki emakumeari egokitu zaizkion lanak, derrigorrez, doan egin ditzan. Generoa kokatzea da, sistema sozioekonomikoa zeharkatzen duen aldagari giltzarri gisa, genero- eta ezberdintasun-harremanak sistemaren egitura-ardatzak baitira, kapitalismo patriarkala horietan oinarritzen baita eta horiei esker irauten baitu.

Bizitzaren iraunkortasuna da oinarrizko beharrizanak asetzea, ondasun naturalen

ahalik eta gutxien ustiatuz, eta igortzeak ere ahal den heinean murriztuz. **Merkatu-hazkuntzaren logika zalantzan jartzea** da, eta onartzea interdependienteak garela, ekonomia ez dela hainbat indibidualtasunen batura hutsa.

Unibertsaltasuna bermatuta, Aniztasunari zor zaion errespetuz, Talde Erantzukizun Sozialarekin, **Publikoa eta Komunala defendatuz**, Jendarte Egitura berri bat ezartzeko, pertsonengan oinarritua, beraien beharrizan eta gaitasunetan, eta ez kapitalaren pilaketan eta etekinaren maximizazioan, banaketa bidezko, iraunkor eta bideragarri baten bitartez, gaur egungo eta etorkizuneko pertsona guztientzat bizitza duin bat bermatuko duena: bizitzea merezi duen bizitza bat.

## GORPUTZAK ETA SEXUALITATEAK

Geure gorputzak dira geure lurraldeak eta horien gaineko burujabetza eta autonomia aldarrikatzen dugu. **Geure gorputzen jabe gara**, beraz, gorputz boteretuak aldarrikatzen ditugu, eta horiek abiapuntu, erabakitzen dugu zer-molako harreman izango ditugun eta nola esku hartu nahi dugun geure gorputzetan, zientziek, erlijioek eta beste edozein arau sozialek bere gorputz-ereduak, generoaren araberakoak, gugan inposatu gabe.

Ezarritako mugak gainditu nahi ditugu, hala geure lurralde geografikoetan nola gorputzezkoetan ezarritako mugak, hartara, geure sexualitatea eta desira ere mugarik gabe bizitzeko. Gorputz disidenteak asko gara: **bollera gorputzak, transak, arrazak markatutakoak, aniztasun funtzionalekoak**... Horregatik uste dugu gorputz horiek ezinbesteko tresna direla iraultza feminista gauzatzeko.
Hori dela eta, Mundu Martxa honetan sinesten dugu, guztian zehar ibiltzen delako, eta, aldi berean, ez digulako mugarik ipiniko, geuri, arauak zilegitzat jotzen duenetik harago bizi garenoi.
Mundu Martxan sinesten dugu, gorputz horiek guztiak boteretuko baititu eta gorputz horietatik abiatuta iraultza egitea ahalbidetuko baitu.
desde ellas.

## SAREAN LAN EGITEA ETA ANIZTASUNA KUDEATZEA

Lurralde ezberdinetatik gatozen emakumeak gara, bizipen, ibilbide, jakintza, gaitasun, identitate, borroka-modu eta aldarrikapen ezberdinekin, eta horiek defendatu, balioetsi eta errekonozitu nahi ditugu, hierarkiarik ezarri gabe. **Onartzen dugu anitzak garela eta, era berean, desberdinak**, eskubideei dagokionez. Aldarrikatzen dugu aniztasuna aberastasun bat dela, ondasun komun bat, gu batzeko balio duena, eta patriarkatuaren oinordetzarekin, emakumeak historikoki etsaitu eta banatu dituen tradizioarekin hausteko balio duena.
Geure buruak irudikatzen ditugu elkarrekin eta **elkarri lotuta, aliantzak ehuntzeko**, erdigunean jarrita geure desberdintasun eta desadostasunak. Elkarbizitza eta elkarrekiko

errekonozimendua sustatzen duten ereduen aldeko apustua egiten dugu, aniztasun berri eta askotarikoak kontuan hartzen dituzten ereduen alde (jatorria, hizkuntza, aniztasun funtzionala, sexu-identitatea, erlijioa, kultur praktikak...), **Euskal Herri kulturalki anitz, laiko eta elkartasunezko batetik.**
Horretarako, elkarrizketa aldarrikatzen dugu, zaintza-harremanak sortzea, ikaskuntza-prozesuak sustatzea, elkarri entzutea eta elkar errespetatzea, loturak sortzeko eta alternatibak eraikitzeko, sistema kapitalista neoliberalaren, arrazistaren, klasistaren, gaitasunen goreslearen eta heteropatriarkalaren aurrean.

# IV NAZIOARTEKO EKINTZA

## "GEURE GORPUTZAK, GEURE LURRALDEAK"

2015ean Nazioarteko 4. Ekintza egingo dugu, lema honen pean: "**Geure Gorputzak, Geure Lurraldeak. Martxarekin jarraituko dugu guztiok libre izan arte**". Martxoaren 6tik urriaren 17ra bitarte, herrialde guztietako milaka emakumek munduari erakutsiko diote zer-nolako alternatiba feministak proposatzen dituzten eredu kapitalista eta heteropatriarkalaren aurrean. Europan, karabana feministaren bat abiatuko da Kurdistandik, martxoaren 8an, eta kontinente osoan zehar ibiliko da. Urriaren 17an amaituko du ibilbidea, Coimbran. Karabana hori **Euskal Herritik pasako da irailaren 28tik urriaren 4ra bitarteko astean**. 4. Ekintzak honako helburu hauek ditu:

Emakumeok bizi ditugun askotariko indarkeria-motak **IKUSARAZTEA ETA SALATZEA**, zapalkuntzak sustatzen dituzten eragileak identifikatuz.

Sistema kapitalista, patriarkal, arrazista eta heteronormatibo bati kontrajarrita emakumeok honezkero eraikitzen ari garen alternatibak **SUSTATZEA ETA IKUSGAI EGITEA**, elkartasuna, poza eta sormena sendotzen duten ekintzekin, eta emakumeak kalera irtetea eta manifestatzea sustatuko duten ekintzekin.

**MUNDUARI ERAKUSTEA** emakumeok erresistentzian ari garela eta ez dugula amore emango gure gorputzen gainean erabaki ahal izan arte, baieztatuko dugu posible dela beste modu batean sortzea eta bizitzea, taldean eraikiz, modu askean.

Gure mugimendua **INDARTZEA ETA ZABALTZEA**, komunitateetatik abiatuta, tokikotik, nazionaletik, eskualdekotik eta nazioartekotik, kaleko ekintzekin, emakume gehiagok parte hartuta, hezkuntza politikoarekin eta beste jendarte mugimendu batzuekin elkarlanean.

# ! EKINTZA SINBOLIKOA

## GURE ALDARRIKAPENAK EREITEA

2015eko ekintzaren ikur komuna **HAZIAK** dira, elikadura-burujabetzaren aldeko borroka gogoan.

Ekintza sinboliko bat proposatzen dugu. Bertan, Euskal Herriko emakume-antolakundeok, antolakunde feministok eta emakume norbanakook geure aldarrikapen eta borroka feministak ereingo ditugu, hainbat tokitan: etxean, balkoian, baserrian, landako eta kaleko baratzeetan, parkean, lokalean, landagunean, hirian, lorategietan...

**Ereite sinboliko** hori, benetako ereite baten bitartez gauzatuko baita, tokiko hazi eta landareren bat landatuz egin daiteke. Era berean, bestelako ekintzen bitartez ere egin daiteke, ereite sinbolikoa oinarri bezala hartuta baina ereite sinboliko hori beste modu batean gauzatuz: performanceak eginez, edukiak ereinez...

Proposamena da talde edo norbanako bakoitzak **argazki bat egitea bere ereiteari eta, gero, emakumemartxa@gmail.com helbidera bidaltzea**. Ondoren, argazki guztiak martxaren blogean partekatuko dira. Ereitearen ekintza **martxoan** hasiko litzateke eta **ekainera arte** iraungo luke.

Ondoren, **KARABANA FEMINISTAK**, irailaren amaiera aldera (irailaren 28tik urriaren 4ra), herrietatik pasatzen denean, ereindako tokietako lurra jasoko du, eta horrek adieraziko du Euskal Herriko emakumeen askotariko borrokek bat egiten dutela. Gero, hurrengo lurraldeari pasako zaio batutako lurra.



# NOLA
## HAR DAITEKE PARTE?

Une honetan, Euskal Herriko Martxan landuko diren eduki eta ekintzak diseinatzen ari gara, eta, era berean, erabakitzen ari gara zer ibilbide eta formatutan egingo den Martxa, hemendik pasatzen denean, iraileko azken astean.

Ahalik eta emakume-talde feministaren gehien mobilizatu nahi ditugu, Euskal Herriko emakumeen aniztasun eta askotarikotasunaren aldarrikapena presente egon dadin.

**Zer egin daiteke Emakumeen Mundu Martxan?**

- Euskal Herriko Martxako ekintzak definitzeko lan egin, taldean.
- Zuen herrietako beste talde batzuekin elkartu eta EHMMaren ekintza-eremuetan oinarritutako ekintzak antolatu.
- Zuen herri eta antolakundeetan ekintzen berri eman eta laguntza eman, 2015eko Martxak emakume asko mobilizatu ditzan.
- Modu aktiboan parte hartu, Euskal Herrirako, 2015ean, elkarrekin zehaztuko ditugun ekintzetan.

Harremanetarako helbidea:
**emakumemartxa@gmail.com**

## 2015EKO EKINTZA DATA GARRANTZITSUEN
# EGUTEGIA

**Martxoak 6**
Karabana Feministaren abiatuko da Kurdistandik.

**Apirilak 24**
Mundu-ekintza 24 orduz.

**Apirila-maitza-ekaina**
2015eko ekintzaren aurkezpena herri eta taldeetan.

**Irailak 28 - urriak 4**
Karabana Feministaren Euskal Herritik pasako da.

**Urriak 17**
Europako Karabana amaituko da, Coimbran.

emakumemartxa@gmail.com